

noaia

**Usurbilek eremu
berdean hasi du urtea**

**Bi herritarrek asmatu
zuten “preziyo juxtua”**

**Sarek manifestazioa
deitu du larunbaterako.
17:30ean abiatuko da
Mikel Laboa plazatik**



**Pandemiak ez zuen
Gabonetako jarduera geldiarazi**

GOLDWELL
ELUMEN

*il
e
a
p
a
i
n
d
e
g
i*

m
I
mistoa

Koloraziotan teknika
berriak eta iraunkorrrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951


munalurra 8, USURBIL

**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK


www.funerariagonzalez.es


**EL
CONQUISTADOR
DEL CARIBE**

**BIZI EZAZU
ABENTURA**
estreinaldia
urtarrilak 11 astelehena





Albisteak iruditan

Amaren intxaurrak Oiardo kiroldegian

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek urtero legez bisitatu zuten Usurbil joan den astelehenean. Oiardo kiroldegian ohi baino ikusle gutxiago hartu zituzten pandemia dela eta, baina hori ez zen arazo izan hurrek inoiz ez bezala disfrutatzeko Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin. 300 haur eta helduk ikusi zuten "Amaren intxaurrak" ikuskizun berria. Pailazoez Usurbilgo herriari gereziondo bat oparitu zioten herrian landatu eta ikuskizunean eginiko lanketak etorkizunean ere lantzen jarraitzeko.

Ikuskizunean Marimototsen ama izan zuten gogoan, duela hiru urte hil zena. Intxaurrondoa landatu zuten amaren oroimenez, bere agurrean. Intxaurrondo horrek emandako fruitutik abiatu zen istorioa: intxaurrak jan ahala, Marimototsen amarekin bizitako abenturak partekatu zituzten protagonistek haur eta



Pailazoez Usurbilgo herriari gereziondo bat oparitu zioten herrian landatu eta ikuskizunean eginiko gogoetak etorkizunean ere lantzen jarraitzeko.

familiekin. Behin dolua igarota, pozez zeuden pailazoez eta irriz begiratzen zuten bai iragana, bai oraina, bai eta etorkizuna ere. Marimototsek gordeta zeuzkan

amarek emandako haziak, parkeko landare eta lore magiko guztienak. Hazi horiek guztiak erein zituzten pailazoez haur eta ikus-entzuleekin.

Laburrean

Udal Plantilla Organikoa, hasieraz onartua

Udal Plantilla Organikoa eta Udal Lanpostuen Zerrenda hasieraz onartu ziren urteko azken udalbatzarrean, abenduaren 23an eginikoan. Bi erabakion alde bozkatu zuten EHBilduk eta PSEk. EAJ abstenitu egin zen.

N634 errepideko errete bat itxita

Aurreko bi asteetan guztiz zabalik izan da N634 errepidea, Troia aldamenean. Errete bat itxita izango da berriz beste bi hilabetez, lanei berrekin dietelako. Behin behineko semaforoek kudeatuko dute ibilgailuen joan etorria.

Ohiko ordutegien itzulera

Asteotako jai egunetan itxita izan dira hainbat udal zerbitzu, edota ordutegiak egokitu dituzte. Ohiko jardunera itzuliak dira, Sutegi udal liburutegia izan ezik. Hilaren 11tik aurrera bai, ohi bezala, astelehenetik larunbatera irekiko dute.

noaqua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkartea@noaqua.eus ||| www.noaqua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte,
Itxaso Orbegozo.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Sutegiko butakatik

Urte berria hasita, desioez, ametsez eta helburuez hitz egiteko momentua izan ohi da. Eta baita urte zaharrari errepasoa egitekoa ere, zerekin gogoratu nahi dugun eta zer ahaztu nahi dugun erabakitzekoa. Eta niri, 2020ko azken hilabetei begira jarrita, Sutegiko besaulkietara joaten zait oroimena. Murrizketak, protokoloak eta neurriak gorabehera, Sutegiko butakek goxo eta abegikor hartu gaituzten sentsazioa zabaltzen zait gorpuztean.

Paper zuriaren gainean X gorria zuten besaulki hotzen ondoan, betiko butaka beltz-grisak epel egon dira, gure zain. Kanpoan hotza, euria eta haizea hasi denean, babesleku goxo eta estimatu bihurtu dira. Tabernak eta kirol instalakuntzak itxita egon direnean, Sutegiko butaketan esertzeko aukera zabalik egon da. Eta nik asko estimatu dudana habia izan da.

Komunikabideen titularretan behin baino gehiagotan entzun dugu kulturari nolako zaplaztekoa eman dion pandemiak eta kultura arloan oholza gainean zein atzean aritzen diren artista eta langileen prekarietatea zenbat areagotu den. Hori horrela izanda, Sutegiko besaulkietatik egoeraren beste aurpegi bat ikusi dugu: artista horien



“Sutegiko butakek eskaini dutena berezia izan da; bi aldeengan sumatu da grina, emateko eta hartzeko gogoia, butakatik txaloak joz eta oholztatik onena eskainiz eta denak elkarri eskerrak emanez”.

AINHOA AZPIROTZ

“2020ko azken hilabetei begira jarrita, Sutegiko besaulkietara joaten zait oroimena, asko estimatu dudana habia izan baita”

gogoia eta ilusioa jendaurrean aritzeko, duten onena emateko, haien kultur lanak eta harribitxiak guri erakusteko eta gure arima elikatzeko. Gogotsu eta oso eskertuta ikusi ditugu.

Besaulkietan geundenok eskertu gaituzte, bertaratzeagatik; eta baita antolatzaileak ere, tranpaldo gainera igotzeko aukera emateagatik. Besaulkietatik ez ditugu ikusi eszenatoki gainean antolatzaileak, baina badakigu hor ibili direla, eta horien ahaleginagatik ere egon gara goxo eta gustura Sutegiko butaketan.

Udalak hiriburuetan ikusi ohi diren emanaldiak ekarri dizkigu gure herri xumera; NOAA!ren eskaintza gero eta anitzagoa eta kalitatean gora egiten duen horietakoa da; Ziortzak, Hitz Ahok, Tadamunek eta Bota Puntubak harribitxi preziatuak ekarri dituzte haur, gazte eta helduentzat; Nafartarrak taldeak beti ikuspegi interesgarri eta berritzaileko hitzaldiak aurkezten ditu; Euskaraldiaren aspetean ere formatu txikiko zein handiko eskaintza izan da euskaraz ardatz hartuta; eta egun batean bat bestean beste bat, egun batean herritar batzuk eta bestean beste batzuk, butakak beti bero.

Kontua da urte bukaerako hilabete hauetan, pandemiaren ondorioek gure eguneroko bizitza baldintzatzen jarraitzen duten honetan, Sutegiko butakek eskaini dutena berezia

izan dela. Xumetasunetik abiatuta, kulturaren garrantziaz hitz egitetik haratago, Usurbilen kulturari eta kulturako artista eta langileei lekua egin zaie, oholza eskaini zaie, eta besaulkietan eserita geundenengan zerbait berezia eragin dute.

Bi aldeengan sumatu da grina, emateko eta hartzeko gogoia. Elkar elikatzeko ariketan murgilduta egon gara guztiok, butakatik txaloak joz, oholztatik onena emanez eta denak elkarri eskerrak emanez, denak ase. Besteak beste, horrek sortzen duen plazera da urte honek utzi duen zaporea.

Orain, 2021ari begira, X gorria duten orri zuriak kentzea falta da, baina bitartean, Xrik gabeko butakek jarrai bezate herritarren habi epel izaten.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Komikia



Lanbide Eskolatik opariak Aspanogi Elkarteko haurrentzat

Lanbide Eskolak beste zenbait ikastetxerekin batera, Gipuzkoako haur onkologikoen familiak biltzen dituen Aspanogi elkartekoentzako opariak prestatu zituzten urte amaieran.

“Balioak 4.0. proiektuaren baitan, ASPANOgiko haurrentzat opariak prestatzen aritu dira Administrazio Kudeaketako ikasleak, Inmakulada Lanbide Ikastola, Easo LHII, eta AEGrekin batera. Aurren, Covid-19ak sortutako egoeraren ondorioz, bakoitza bere ikastetxean, baina digitalki bat eginda prestatu dituzte panpinenez eta beste hainbat osagarritz betetako poltsatxoak”, berri eman dute Lanbide Eskolatik.

Aipatu proiektuari buruzko xehetasunak ere helarazi dizkigute aipatu ikastetxetik. “Ba-



Aspanogi elkartekoentzako opariak prestatu zituzten urte amaieran.

LANBIDE ESKOLA

“Beren lanarekin mundua hobetzen lagunduko duten profesionalak hezte da helburua”

lioak 4.0. Tknikak bultzatzen duen proiektua da. Pertsona

hobeak prestatzea eta beren lanarekin mundua hobetzen lagunduko duten profesionalak hezte da helburua. Horretarako enpatia, erresilientzia, konpromezua, solidaritatea, elkarlana eta erantzukizuna bezalako balioak lantzen dira ikastetxean”.

Neguko Txokoak, gaztetxoen gozagarri



83 gaztek eman zuten izena Neguko Txokoetan. Lehen edizioa arrakastatsua izan dela esan daiteke.

Behar zuten eta ezin onuragarriagoa suertatu zaie. Bi hilabete lehenago eten zieten Eskola Kirola, jolas eta gorpuz

hezkuntzari lotutako ariketen eskaintza berreskuratu ahal izan dute asteotan Usurbilen eta Aginagan antolatu diren

Neguko Txokoetan. 83 partaide erakarri zituen ekimenak. Oporraldia era ezberdinean igarotzeko aukera izan zuten.

Eremu berdean agurtu genuen 2020a

Covid-19aren aurkako txertaketa kanpaina hasi berritan, 100.000 biztanleko 14 eguneko intzidentzia ezin baxuagoarekin agurtu genuen urtea Usurbilen; 31,66koarekin.

Beharakada horren adierazgarri, abenduan 17 Covid-19 kasu zenbatu zituztela udalerrri honetan, aurreko hilabeteetan baino nabarmen gutxiago; azaroan 69 izan ziren, 72 urrian, 49 irailan. Martxoaz geroztik 231 kutsatze eta 4 hildako eragin ditu koronabirusak Usurbilen. Ondorioz, 1,7ko hilgarritasun-tasa du Covid-19ak udalerrri honetan.

Covid-19a izan dutenetatik zenbat hil diren zehazten duen hilgarritasun-tasari dagokionez, Oti gorako tasa izan duten udalerrrien artean, baxuenetarikoa du Usurbilek.

2020. urte amaierako datuak Usurbil

- Biztanleak: 6.318.
- Covid-19 kasuak: 231.
- 100.000 biztanleko intzidentzia-tasa: 3656,2.
- Hildakoak: 4.
- Hilgarritasun-tasa: 1,7.

Usurbil-Lasarte

Osasun Eremua

- Biztanleak: 26.512.
- Covid-19 kasuak: 1.171.
- 100.000 biztanleko intzidentzia-tasa: 4.416,9.
- Hildakoak: 18.
- Hilgarritasun-tasa: 1,5.

Gipuzkoa

- Covid-19 kasuak: 38.535.

EAE

- Covid-19 kasuak: 116.912.
- Hildako kasu positiboak guztira: 3.031.
- Covid-19aren eraginez hildakoak: 57.

San Tomasik ez, baina sarituak bai

Pandemiak eraginda, San Tomas azokarik ez da izan aurtan. Hala ere, urteroko sagardo eta babarrun lehiaketak egin ziren, modu pribatuan izan bazen ere. Abenduaren 20an elkartu ziren irabazleak saria jasotzeko.

2020ko edizioan saritutako herritarrak hauek izan ziren:

Sagardoan sarituak

- 1. Troya baserriko Imanol Zarautz.
- 2. Etxetxo baserriko Joxe Manuel Lizarralde.
- 3. Zugasti baserriko Pili Arroyo.

Babarrunean sarituak

- 1. Aldapa baserriko Antonio Eizagirre.
- 2. Izarpe Etxeko Juan Karlos Balerdi.
- 3. Ibai-Ertzeko Manuel Aizpurua.



Aldapa baserriko Antonio Eizagirrek eskuratu zuen babarrun lehiaketako lehen saria.

SAN TOMASEKO SARIKETA

“Babarrun lehiaketan 17 ekoizle aurkeztu ziren. Sagardokoa, 21”

Partehartzeak behera egin du babarrun lehiaketan

Urtero legez, epaimahai paregabea osatu zen NOAUAN jasotako produktuak aztertzeko.

17 baserritatik bidalitako babarruna Tolosako Babarrun Elkar-teak gainbegiratu zuen onenak banatzeko. Sagardoan, berriz, herriko sagardogile profesionalak aritu ziren lanean.

Aurrekoetan baino partehartze txikiagoa eman zen babarrunean, 17 ekoizlek baino ez zuten parte hartu. Sagardoan ordea, aurreko urteen pare ibili

zen, 21 partehartzailerekin.

Emakumeei merezi duten tarte eman nahian, epaimahai parekidea izan zen. Sagardo irabazlearen aburuz, datorren urterako ideia ona litzateke epaimahaia parekidea izateaz gain, azokan bertan ekoizleek euren produktuak erakustea. “Sagardoa zerbitzatzen ari gaitzke gu geu. Zailtasunak izaten dituzte urtero antolatzailerek sagardoa botatzeko jendea aurkitzeko, eta ideia ona izan daiteke bakoitzak berea zerbitzatzea. Horrela gertutasun gehiago sor liteke ekoizle eta dastatzaileen artean, eta iritziak ere zuzenean jaso ditzakegu. Asko gustatzen zaigu iritzi onak eta laudorioak jasotzea, baina horren ona ez badago ere, iritzi hori jasotzea ere interesgarria izan daiteke zer hobetu jakiteko”, proposatu zuen Imanol Zarautzek, aurtengo sagardogile irabazleak.

Juan Karlos Balerdi, Aldapa baserria: “Lan gogorraren fruitua da saritua izatea”

Irabazle batzuek ongi ezagutzen dute frontoiko oholtza gainera saria hartzera igotzeko momentua, azken urteetan behin baino gehiagotan igo baitira jendaurrea sari bila. Babarrunaren kasuan, Juan Karlos Balerdik bigarren urtea du jarraian babarrunean sari-

tua izaten; lehen postuan joan den urtean, eta bigarren urtean oraingoan. “Babarrun hazi ona izango dut seguraski, eta lan gogorraren fruitua da saritua izatea”, baieztatu zuen Balerdik. Pili Arroyo ere joan den urtean oholtzan izan zen, baina babarrunarekin joan

zen urtean, eta sagardoarekin aurtan: “Lan asko egiten dugu baserrian eta kalitatezko produktua egiten ere saiatzen gara”.

Sagardoan ere saritutakoa

Alderantzizkoa gertatu zaio Aldapa baserriko Antonio Ei-

zagirreri. Duela bi edizio sagardoan saritua izan zen, eta azken honetan berriz, babarrunean: “2008an ere txapela lortu nuen, babarrunarekin, eta beste urte batzuetan ere sariren bat irabazi izan dut. Sagardoarekin, berriz, 3 urteetan irabazi dudala uste dut”.

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ARRANDEGIA PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIK!
650 31 31 91 USURBIL

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Ekoizleentzat ere urte zaila izan zen

Sagardoaren kasuan, Joxe Manuel Lizarralde bigarren urte jarraian lortu zuen saritua izatea: “hiruzpalau aldiz izan naiz saritua”. Manuel Aizpuruak joan den urtean ez, baina lehenago txapela bat baino gehiago eskuratu zituen 2016 eta 2017an, bai eta lehenago ere: “Bost txapela dauzkat irabazita, eta hirugarrenak beste bost gutxienez, eta bigarren bat ere bai”. Sekretua lan asko egitea omen da, umetatik lan eta lan aritzearen ondorioa da horrenbeste txapela irabaztea. Oraindik ere baten bat gehiago irabaziko omen du aginagarriak.

Imanol Zarautz, berriz, estreinakoz izan zen saritua San Tomas azokan. Hainbat urteetan Santixabeletako bertsopaper lehiaketako saria lortua da, baina sagardoarekin San Tomasetan saritua izan den lehen aldia da. Eta nola gainera, lehen



Imanol Zarautz estreinakoz izan zen saritua sagardo lehiaketan.

BABARRUN URTE ESKASA

**“2019an batutako
babarrunaren erdia
jaso zen 2020an”**

saria lortuta. “Zazpi bat aldiz eman nuen izena duela urte asko, eta baziren hainbat urte ez ginela animatzen. Aurten berriz probatzeko izena eman, eta lehen saria; halaxe tokatu da”, adierazi zion NOAUA!ri Imanol Zarautzek.

Uzta eskasa

Uztarentzat 2020 urtea ez da urte ona izan, ez behintzat babarrunarentzat. Urte berezia izan zen babarrunarentzat, eta gehienek urte txartzat hartzen badute ere, urte berezia izan dela diote guztiek. “Urte desberdina izan da 2020a, babarrun beltzen tartean horiak ere atera ditugu, eguraldi nahasiaren ondorioz”, azaldu zuen Manuel Aizpuruak sari banaketaren ekitaldian.

Irabazleek urteko balorazioa ez zuten batere ona egin, euri urtea egokitu zen uzta jasotzerako garaian eta produktua lehortzeko zailtasun handia izan zutela aitortu zuten irabazleek. “Ez hori bakarrik, hazi batzuk lorea goizegi eman zuten, beste batzuk aukeran beranduegi, eta biltzeko garaian ere ale oso desberdina etorri da”, horixe zioen Juan Karlos Balerdik. Botatzeko asko eta aprobetxatzeko gutxi, horixe izan da balorazio orokorra. “2019an lortutako babarrunaren erdia edo gutxiago atera zen 2020an. Hazia egiterako garaian eguraldi txarra tokatu zen, lorea ere berandu atera zen. Udazkenean gero berandu hasi ginen biltzen eta oraindik ongi heldu gabe zegoen”, Aldapa baserriko Antonio Eizaguirre irabazlearen esanetan. Urte txarra beraz, partehartzailer guztientzat.

Imanol Zarautz: “Urtero egiten dugu sagardoa etxean”

Sagardoak babarrunak baino urte hobeia izan zuen 2020an. Herriko gazte asko animatu dira azken urteetan etxerako sagardoa egitera; lagunartean botila batzuk atera eta bazkari eta afariak alaitzeko egiten dute askok.

Baserritar zenbaitek ere urtero egiten dute sagardoa etxekoentzat, eta oso zoilduta daude produkzio prozesuan. “Urtero oso gustura egoten

gara ateratako sagardoarekin. Nire senarrak duela hainbat urte ekarritako upela erabiltzen dugu eta oso sagardo ona eman ohi du”, aitortu zigun Pili Arroyok. Sagardoaren kalitatearen atzean ez dago sagardogilea bakarrik, eguraldiak ere zerikusi handia du prozesuan. “Sagardoak bere garaiak izaten ditu sagarrak bildu eta sagardoa egiteko. Aurtengoak ere itxura oso ona

du, laster hasiko gara biltzen. Aurtengoak badirudi gorrixeara izango ote den, baina garrantzitsuen zaporea da guretzat”, azpimarratu zuen Joxe Manuel Lizarralde.

Sekretua, “lan gogorra eta mimo pixka bat”

Baserritarrek ongi asko dakite noiz bildu eta nola tratatu behar duten produktua. “Etxean egiten dugu urtero.

Tolare kozkor bat daukagu, eta amaren jaiotetxean ere sagardo asko egin izan da betidanik. Beraz, etxerako egiten ditugu litro batzuk: batzuetan 800 bat litro, besteetan 1000 litro inguru... hortxe aritzen gara”, horixe esan zuen Troya baserriko irabazleak. Horixe omen da sekretu bakarra produktu ona lortzeko, lan gogorra eta mimo pixka bat.

**Zuen
publizitatea
hemen**
943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78 RPS: 28/17 20170
USURBIL

**Josue
Igeltseritza**
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Urtarrileko horoskopoa

Hitzak: Barretartia. Irudiak: Ainara Azpiazu Aduriz Axi.

Puntapaxeko sorginaren EROskopoa



ARIES

Sobratutako turroi eta polboriak jaten segitzen duzu, erretiluan azkenak geratzen diren almendra azukretuak barne. Hileko aholkua: Badakigu errutinarako buelta zaila dela, baina azukreak ez du dena konpontzen!



CANCER

Kirola egiten hasteko garai aproposa duzu hauxe. Hileko aholkua: Baina kontuan izan kiroldegiko abonoa ordaintzeak bakarrik ez dizkizula gabonetan metatu dituzun mitxelinak kenduko!



LIBRA

Lehen zaila bazen, parrandak debekatu dituztenetik ia ezinezkoa da ligatzea. Hileko aholkua: Hasi erabiltzen Interneteko aplikazio famatu horietako bat. Beharbada ez duzu ligatuko, baina izugarri entretenituko zara!



CAPRICORNIUS

Zure urtebetetzea esperantza handiekin dator aurten. 2021a aurreko urtea baino askoz hobea izango omen da. Hileko aholkua: Horregatik bakarrik inoiz baino opari gehiago merezi dituzu!



TAURUS

Urte aldaketak ez du koronabirusa ezabatu. Hileko aholkua: Gauza bat da asmo onak izatea garai honetan, eta beste bat, mirakuluak eskatzea!



LEO

Urtea elikadura zainduz hasia izango duzu onena. Hileko aholkua: Sagardoa teknikoki sagarraren zukua da, bai, baina dieta berrian txotx egiteak ez du balio, ez...



SCORPIUS

Gabonei agur esateak pena handia ematen dizu, baina bizitzak aurrera darrai. Hileko aholkua: Etxe barruko zuhaitza oraindik mantendu dezakezu, baina mesedez, kendu itzazu balkoiko argiak norbait itsutu aurretik!



AQUARIUS

Urteko zure asmo ona erretzeari uztea izango da, enegarraren aldiz. Hileko aholkua: Kasik errazagoa izango da tabakoak zu uzten bazaitu!




GEMINI

Desiratzen zaude Olentzero eta Erregeek ekarritako opariak lankideei erakusteko. Hileko gomendioa: Aste egun bakoitzean maskarilla fashion bat estreinatuko duzu!



VIRGO

Lanera bueltatu besterik ez zara egin eta dagoeneko Aste Santuko oporren zain zaude, bidaiatzearekin amesten. Hileko aholkua: Ba gabiltzan martxan, hobe zenuke erreallitate birtualeko betaurreko batzuk erosi...



SAGITARIUS

2021ak pertsona hobeak izateko aukera emango digu guztioi, baina zuri bereziki. Hileko aholkua: Pertsona hobe izan nahi duzu? Hori beste kupel bateko sagardoa da!



PISCIS

Ilusio asko zenuen 2020. urtea bukatzeko eta horregatik urte berriari ongi etorria emateko ia gel hidroalkoholikoarekin egin zenuen topa. Hileko aholkua: Baina ez al dakizu bigarren zatiak beti okerragoak direla?

Patri
Patri 2021
Jatetxea

· bazkariak EGUNERO
· afariak, ostegunetik larunbatera

☎ 943 362725 · ☎ 688 690 361

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Orbeldi Dantza Taldea, herriari ohore eginez

Haiek sortutako “Sokan Dantzan” ikuskizunarekin urte benetan zaila bizi izan duen herriari ohore egin nahi izan zion dantzan eta kantuan Orbeldik herriko txistulariekin batera, abenduaren 27an Oiardo Kiroldegian. Ohorea ordean bertaratu zirena izan zen. Emanaldi berezi honekin urte gogorra agurtu dute baita herriko dantzariak; ia urte osoa daramate entseatu ezinik, ikastaroetako klaseak eskaini ezinik; egun, urriaz gerotik bigarrenaz jardun guztia etenda dute.



Emanaldi berezi batekin urte gogorra agurtu zuten abenduaren 27an Oiardo kiroldegian.

Usurbil ageri da “Lanbroa” laburmetraian

Elizaren kanpandorreko erlojua auzolanean berritu eta udan jatorrizko kokagunera itzuli zuten. Auzolan horretan parte hartu zuten “Erlojeruak” lagun taldeko kideekin erloju egile tradizio luzea duten familiako Yereguitar Elkartekoek. Haien istorioa biltzen du agurtu berri dugun urtean Ana Sernak, Paula Iglesiasek eta Maialen Oleagak zuzenduriko “Lanbroa” laburmetraiak. Ikus-entzunezko lan honen eszena batzuk Usurbilen bertan grabatu zituzten.

Usurbilgo Udalak diruz lagundutako sortze lan hau osorik ikusi nahi baduzue, urtarrilaren 17an (igandea) proiektatuko dute 18:00etan Sutegin. Bertaratzeko sarrera doan eskuratu



Urtarrilaren 17an igandea proiektatuko dute filma Sutegin.

ahaliko duzue urtarrilaren 14a baino lehen, usurbilkultura. eus atarian. Udalak antolatutako ekitaldian gainera, laburmetraia aurkeztera etorriko dira Sutegira Maialen Oleaga, Xabier A. Yeregui eta Begoña Arruti. Haiekin solasean aritzeko aukera izango da.

Filmaren sinopsian irakurri ahal izan dugunez, “gaixo-

tasunak Bego berriz jotzen duenean, denbora gainera datorrkitio. Bultzada honek Xabierrekin batera antzinako erlojuak konpontzera darama. Bere gaixotasunaren eta denboraren arteko elkarriketan, poesia bisualez betetako dantza deserosoa sortzen da. Antzinako erloju pisutsuek industria eta trenbideen garaietara eram-

go gaituzte. Lehen herrien erdigune ziren erlojuak, gaur izoztuta gelditu dira. Bego gaixotzen denean, bera eta Xabier, erlojugile familia batetik datorrena, aitona eraikitako erlojuen bila hasten dira. Yeregitarren historia azaltzen du nola industrializazioak mundua eraldatu zuen eta horrekin baita beraien erritmoak ere. Aurkitzen duten erloju bakoitzak iraganaren inguruan hitz egiten du, baina baita orainaren inguruan ere. Beraien pasioari esker, lan talde bat sortzea lortzen dute leku desberdinetan aritzen dena, kanpai dorrearen erritmoaz eraiki zen historia berreskuratuz”.

Urte berri on! Adorea eta osasuna denori!

2020a hitz bakarrean laburtu ezina den arren, inoiz ezagutu gabeko egoerak ekarri dizkigu inondik inora eta bere argi eta ilun guztiekin, iritsi gara urte zaharraren hondarretik berrirako zubira. Nork esango zukeen 2020an bizi izan ditugunak bizi beharko genituzkeenik! Gaitz erdi, pasa dugunetik ikasi eta 2021ean egoera gainditzeko adorea pilatzen badugu!

Zubietako Herri Batzarraren urtea ere goitik behera baldintzatu du Covid-19aren pandemiak. Otsailean egin genuen Herri Bileratik ideia sorta ederrekin atera ginen eta, ahal izan dugun heinean, horiek aurrera eramaten saiatu gara. Seguru asko ez gara nahiko



“Zubietako Herri Batzarraren urtea ere goitik behera baldintzatu du Covid-19aren pandemiak”.

genukeen dena egitera iritsi baina, gauza batzuk gauzatu ditugu, beste batzuk bideratu

eta beste batzuk konpontzen hastea ere ez dugu lortu.

Ondorengo irudietan duzu

egindakoen laburpen bat. Den-denak ez dira egongo baina dauden hauek egin dira.

Oinezko bidea



Guk Zubietan zer? parte-hartze prozesua



Bizikletek lehentasuna



Proiektore berria Kaxkapen



Puntu beltzak argitzen: Ispiluen ezarpena**Puntu beltzak argitzen: Ispiluen ezarpena****Puntu beltzak argitzen****Euskaraldiarekin bat****Udako ekitaldiak: Bertso saioa****Udako ekitaldiak: 'Tio Teronen Semeak'-en ekitaldia****Web orrialdea martxan****Aliriko zubiko egokitzenak**

Salmenta handia Sohütako Ikastolaren alde

Nafartarrak kultur elkar-teak Sohütako ikastola laguntzeko urtero antolatzen duen kanpainak jende askoren babesa izan du. “Guztira 12.000 euro biltzea lortu da Usurbilen”, ekimen honen sustatzaileek aditzera eman dutenez.

Urtero bezala, ikastolak eta Zuberoako laborariak ekonomikoki laguntzeko aukera egon da saskien bidez. “Aurten Usurbilgo Nafartarrak elkar-teak zein inguruko zenbait boluntario eta elkar-teen laguntzarekin eraman da aurrera salmenta eta banaketa lana”. Kanpaina aurrera eraman duten kideen arabera, salmentak oso onak izan dira. Emaitzak hurrengoak izan dira Usurbilen: Ahüski izeneko 145 saski, 66 Irati eta 42 Orhi.

Saski hauen salmentari es-



“Guztira 12.000 euro biltzea lortu da Usurbilen”, ekimen honen sustatzaileek aditzera eman dutenez.

ker, 12.000 euro bildu dituzte Usurbilen. “Euskal Herri mailako datuak kontuan hartzen baditugu, guztira 2.200 saski

saltzea lortu da”.

Elkartasun kanpaina honen bultzatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete “saskiak erosi eta

beraien babesa eman duten usurbildar guztiei. Jaso Zuberoako ikastolen zein laborarien eskertza”.

Botere harremanez eta zapalkuntzaz

“Euskal herri euskaldun, sozialista eta feminista denon artean eraikiko dugulako”, indarrak batzeko apustua egin zuten abendu amaieran Buruntzaldeko Ernai bilguneek, “gure herriaz ikasi, hausnartu eta formatzeko” antolatu zituzten eskualde mailako Gazte Topaketetan. Hitzorduetako bat Udarregi Ikastolan egin zuten abenduaren 27an; “Militantzia morea: ikusezinezko botere harremanak” hizpide zituen. “Askotan gure artean botere harremanak eta zapalkuntzak ematen dira”, adieraziz hasi zuten hitzorduarekin berdintasunerako bidean urratsak emateko lanketan ekarpena egitea nahi zuten antolatzaileek. Hainbat ariketa praktiko ere egin zituzten.



“Gure herriaz ikasi, hausnartu eta formatzeko” antolatu zituzten eskualde mailako Gazte Topaketak Usurbilen.

Bik asmatu zuten “Preziyo juxtua”

Herriko saltokietan eros-
tearen truke, 2.435
euroko balioa zuen
Kontzeju Zarra 13ko erakuslei-
hoko produktuak irabazi ditu
ondoko herritar taldeak. Hain
zuzen, erakusleio honen
“preziyo juxtua” asmatu behar
zuten, “pasa gabe”, Hurbilago
Elkarteak antolaturiko kanpai-
naren baitan.

Eta batek ez bi lagunek as-
matu zuten prezio zehatza.
Beste zortzi lagun ere dirutan
zuen balio “juxtua” asmatzetik
oso gertu ibili dira. Guztiek,
trukean, erakusleioan zeuden
produktuak irabazi dituzte.
Segidan sarituen zerrenda eta
bakoitzak erakusleioari diru-
tan emandako balioa:

- 1- Javier Ibarra: 2.435 euro.
- 2- Koro Arroyo: 2.435 euro.
- 3- Imanol Uribe: 2.434,50 euro.



Batek ez, bi lagunek asmatu zuten Hurbilagoren lehiaketako prezio zehatza.

10 SARITU

**Beste zortzi lagun balio
“juxtua” asmatzetik oso
gertu ibili ziren**

- 4- Joxe Mari Arzallus: 2.433,45 euro.

- 5- Ainhoa Salsamendi: 2.431,14 euro.
- 6- Unax Lasa: 2.428,3 euro.
- 7- Jexux Arrillaga: 2.427 euro.
- 8- Iciar Alcorta: 2.424 euro.
- 9- Eider Gorostidi: 2.423 euro.
- 10- Loli Fernandez: 2.422,50 euro.

“Argiztatu Herria” kanpainako otarrek badute jaberik

“Argiztatu Herria” ekime-
neko bost otarrak banatu
zituen astelehen eguerdian
Hurbilago Elkartek. Aben-
duaren 31ra arte herrian
bertan erosketak egin zituz-
tenen artean zozkatu ziren.
Horixe saritu nahi baitzuen
Hurbilagok; herrian bizi eta
herrian erostea.

Sarituak:

- Paula Rubio.
- Ana Eizagirre.
- Ainhoa Arruti.
- Tono.
- Marta Pizzo Montes.



Astelehenean egin zen zozketa.



Erakusleiohoko sariketaren bitartez hamar herritar saritu zituzten. Albistean dituzue sarituen izen-abizenak.

“Herriarrek harrera oso ona egin diote Olentzerori”

Aurrekaririk ez duen oztopoa izan du aurtengo Olentzerok gure artera etortzeko; inoiz ezagutu ez dugun Covid-19ak eragindako pandemia. Baina prebentzio neurri zorrotzak hartuta, Usurbila iritsi zen abenduaren 24an; bigarren oztopo bati aurre egin behar izan zion ordea, egun hartako euri zaparradei. Eta euriak bai, gure artean egitekoa zuen bisita oztopatzeaz gain, aurreikusia zuen bira laburtzea eragin zuen.

Jendea antza galdezka zebilen ia Olentzero bere etxe aurretik igaroko ote zen edo ez. “Gertatutakoa bihotzez sentitzen dugu”, adierazi dute NOAUA! bidez antolatzaileek.

Kaxkoko bira laburtu beharra
“Zubietara arte zutik eutsi zion Olentzeroren bueltan egoki-



Eguraldia medio, kaxkoan aurreikusia zuen ibilbidea ez zuen osatzerik izan.

tu genuen dekorazioak. Baina Zubietan musika eta argia eten zen akats tekniko batengatik. Konpontzen saiatu ginen baina berandutu zitzaigun eta Olentzero blai zegoen. Arazo horriengatik, Kaxkoko bira laburtu genuen”, adierazi digute. Eta

horregatik ikusi zen herri erdigurean, argirik eta musikarik gabeko Olentzero. Bira bera bertan behera uztekoan izan zirela ere aditzera eman digute.

Eskertza

Inoiz ezagutu gabeko osasun

krisialdi betean ospatu den ekimenak izandako harrera bikaina azpimarratu dute antolatzaileek. “Herriarrei eskerrak eman orokorrean gehienek bai etxe ataritik edo leihotik agurtu zutelako Olentzero. Jendearen erantzuna oso ona izan da”.

Eskertza hau luzatu nahi diete bira berezi hau ospatu eta Olentzeroren mezua biltzen zuen bideoa grabatzea ahalbidetu zuten guztiei; bai herriar, eragile parte hartzaileei eta Udalarri emandako babesagatik. “Su berri” izeneko lana NOAUA!ren Youtubeko kanalean duzue ikusgai. Modu berezian brigadakoei eta udaltzaiei, biraren azken txanpa zail horretan eskainitako laguntzagatik. “Pena, Jokin Eizagirre herriarrek landutako dekorazio polita ezin izan zuela kaxkoak ikusi, aipatu ditugun akats teknikoengatik”.

Publikorik gabe eta musukoarekin kantari

Udaberriko konfinamendu gogorra, irailera arte etenda izan zituzten aurrez aurreko klaseak, gerora bertan behera geratu zitzaizkien eskolaz kanpoko hainbat ekintza... Halere, ilusioz, kantuan giro alaiean murgildu ziren Aginaga, Zubietara eta Udarregi Ikastolako ikasleak neguko oporretan. Abenduaren 18an gabon kantak abesten aritu ziren herriko txoko desberdinetan; Covid-19 garaiko mota honetako lehen ekitaldiak izan ziren, kalean egindako bakarretarikoak. Aurreko urteekin alderatuta oso desberdinak; musukoekin, publikorik gabe eta talde txikiagoetan aritu ziren kantari. Udarregiko DBHkoek ezin izan zieten ikasle gazteagoei hamaiketarako txistorra prestatu; mokadutxoa aurtan, garai zaila bizi duten tabernariak sukaldatu zuten. Elkartasunak batu zituzten tabernariak eta ikastolako kideak.



Argazkian ageri den koadrila Aginagan barrena ibili zen kantari.



Zubietan galtzagorriak bertaratu ziren.



Elkartasunak batu zituen tabernariak eta Udarregi ikastolako kideak.





Abenduak 16. Usurbilgo ondarea aztertzen lanean aritu dira zenbait herritar, Udalarekin elkarlanean. 24 harrobi eta 129 errotarri topatu dituzte. Ikerlari taldean da Asier Agirresarobe.



Abenduak 19. Argi eta itzalekin osatutako ikuskizun berezia da "Aioko", eta asko gustatu zitzaien bertaratu zirenei. Sutegiko auditorioa txiki geratu zen.



Abenduak 22. Arratoi baten istorioa biltzen zuen "Etxean goxo" txotxongilo ikuskizunak. Izen gabeko protagonistak etxekoan epelean bizitako abenturen lekuko izan ziren ikusleak.



Abenduak 23. Alaitz Aizpuruak Ugandan eginiko argazkiak jarri zituen erakusgai, Mukwano-Lagun elkartearekin egindako bidaian. Erakusketa jarri bezain pronto, hitzaldi txiki bat eskaini zuen Sabin Gabilondok.



Abenduak 26. Xabier Lete izan zuten gogoan Sutegin. Bertsoz, kantuz eta hitz lauz.



Abenduak 27. Tomaxen abentura berriez gozatzeko aukera izan zuten Sutegira bertaratu zirenek.



Abenduak 28. Ohiko bertso saioetatik urrun, haurrak izan ziren "Bertso jasa" ikuskizuneko gai-jartzaile eta errimen arduradun.



Urtarrilak 2. Petti eta bere taldekideek ikuskizun gogoangarria eskaini zuten Sutegin.

80 urte eta aurrera

Ezin izan dute beste urteetan bezala bazkari eder baten bueltan ospatu denek batera, senide eta lagunekin. Pandemiak eragotzi die. Ez ordea, merezitako erre-konozimendua jasotzea. Urterro moduan, Aginagako Arrate elkarteak kideek amaitzeko gogoz ginen 2020an 80 urte bete dituzten herritarrek omendu zituen. Ondoko irudiko laukotea; Beatriz Ubera, Mari Kontxi Mayozer, Joakin Bengoetxea eta Maritxu Gozategi. Zorionak! Oroigarri bana jaso zuten, meza berezi baten ostean.

Ezohiko testuinguruan egokitu zitzaizen omenaldia. “Hala egokitu da eta ez dago beste ezer egiterik”, adierazi dio NOAUA!ri Maritxu Gozategi Makazagak. Ospakizunak ordea ez dituzte bertan behera utzi, atzeratu baino ez. “Aurrerago antolatuko dugu, errebantxa hartuko dugu”, ziurtatu zion NOAUA!ri Beatriz Ubera Manteolak.

Bi omenduok, Beatriz eta Maritxurekin bildu da aldizkari hau haien 8 hamarkada haue-tako bizimodua ezagutu nahian. Biak ezkondata Aginagara



Beatriz Ubera, Mari Kontxi Mayozer, Joakin Bengoetxea eta Maritxu Gozategi oroigarri bana jaso zuten.

BEATRIZ UBERA

“Aurrerago antolatuko dugu, errebantxa hartuko dugu”

bizitzera etorri ziren gatzetan; 54 urte egin ditu bertan Orion jaiotako Maritxuk. Handik hurbil Zarautz izan zuen sorterrria Beatrizek. 23 bat urterekin joan zen Aginagara bizitzera. Sorterrria ez da ahazten ordea. “Aginagan gustura naiz baina ni zarautzitarra naiz”, argi utzi nahi izan digu Beatrizek.

Biek haien bizi proiektua Aginagan garatu dute gaur arte. Heldu berriak ziren Aginaga hura oroitzeko eskatu diegu. Lurrari, baserriko lanei lotutako bizimodua deskribatu digu Ma-

ritxuk. “Gau eta egun lanean. Hemen ez zegoen besterik”. Mapilera bizitzen jarri ostean, abeletxea jarri zuten. “Aurrena txerriekin. Gero txito txikiak ekarri eta hazten genituen”. Hori aski ez balitz, gauez “anguletara joaten ginen”. Errioak ez zuen gaurko itxurarik. “Hura handia zen. Behin 13-14 kilo ekarriko genituen”.

Errioan eta lurra lantzen aritzen zen orduko Aginaga, Michelinera edota inguruko lantegiren batera joaten zirenak salbu. Halere haietako batek baino gehiagok ere etxera bueltatu eta lanean segitzen zuen. “Hemen errio izkin denak lantzen ziren, bertako jendeak lantzen zituen, etxerako janaria izateko; artoa, babarru-

na... etxerako behar zena”. Aisialdirako denbora gutxi izaten zuten, “taberna larunbat iluntzeetan eta igandeetan pixka bat, astetartean gutxi”.

Etxeko bizitzari lotuagoak

Beatriz Zarauzko altzari lantegi ezagun batean lan egiten hasi zen 18 urterekin. “Gero lanetik atera eta jostera joaten ginen”. Bizimodu aldaketa izan zen Aginagara etortzea. “Hasieran inpresio pixka bat egiten zidan plazara ateratzek”, kontatu digu Beatrizek. “Ia pekatua bezala zen etxetik ateratzek”, oroitzen du. “Gizonak libre zuten soziedadera joatea, baina emakumea izanda etxean egon behar zen, oso desberdina zen”.

Denborarekin haurrak izan ostean, eskola erdigunean zuen garai bateko plaza (egungo frontoiaren kokagunea) oroitzen du. “Emakumeok elkar ezagutzen hasi eta plazan oso ondo moldatzen ginen”. Haurrek garai hartako inguru hartan nola jolasten zuten oroitzen du Beatrizek. “Mendi aldera joaten ginen, buelta bat egin eta halaxe” bizi ziren. Familia handietan. “Orain etxe gehiago baino jende gutxiago bizi da”, dio.

“Osasuntsu gaude, zer gehiago eskatu?”

Denontzat ezohikoa, ahaztezina izan den agurtu berri dugun 2020. urteari buruz galdetu diegu. Elkarriketatu genituen egunetan, itxita zuten haien bilgune nagusitzat duten Arrate elkarte eta taberna. Halere egunero mundu zabaletik Covid-19a dela eta heltzen zaizkien albisteak kontuan zanda, “ez dugu kexatzekorik, osasuntsu gaude eta zer gehiago eskatu behar dugu?”, galdetzen du Beatrizek. Baina Arrate itxita egonda hutsune nabarmena sentitzen

zuen. “Arratsaldean bueltatxo bat eginez hona etorri, kafetxo bat hartu, lagun artean tertulian aritu, kartetan jokatu eta gustura etxera berrituta joaten zara”. Laboreen tailerrean ere parte hartzen zuen, “oso ondo pasatzen genuen. Orain jada ez dugu ezer”. Bere iritziz, “egiten dutenerako zerbaiteagatik izango da”, prebentzio neurri guztiekin ordea bere ustez, “ez dago dena itxi beharrik”. Halere argi du, “konformatu egin behar. Dagoenarekin ahal den ondoena eramaten saiatu eta

aurrera egin, besterik ez dago”. Maritxuk aipatu digunez, “etxetik atera ere egin gabe egon gara gu”. Azken hilabeteotan hasi dira osteratxoak egiten. “Elizaraino joaten gara, haiaiketako egin eta etxera, eta memoria tailerra orain hasi da”. Halere esan digunez, “nahiago du hementxe etxe ondoan entretenu. Orain gauden egoerari inora joateko inbidiarik ez dut. Hemen inguruan egindako mundua dugu guk”. Gainerakoan pandemia hau “nahiko suabe pasatzen ari dela” su-

matzen du inguru hurbilean, “ezer txarrik gabe”. Halere ilobei esaten omen die, pandemia hau igarotakoan “lehenago bizimodura itzultzea oso zaila izango da” batentzat baino gehiagorentzat.

80 urteetara hain sasoiko heltzeko sekretua zein den galdetu diegu. “Ez dago sekreturik. Bizimodu normala eramanez, besterik ez”, dio Beatrizek. Bizimodu horren zati nabarmen bat lanari lotuta igarotzea beste sekreturik ez dago Maritxuk aipatu digunez.

Sarek manifestazioa deitu du larunbaterako

Covid-19a tarteko, ez da euskal presoek eskubideen alde urte hasierako ohiko mobilizazio jendetsurik izango larunbatean Bilbon. Herriz herriz mobilizatzeko deia egin du Sarek Bizkaiko hiriburuko hitzordua abiatuko zen ordu berean, 17:30ean. Gutxienez 216 udalerriek bat egin dute deialdiarekin, tartean Usurbilek. “Etixerako, elkarbizitzarako, bakerako bidea gara” aldarripean manifestazioa egingo da herrian barrena, Mikel Laboa plazatik abiatuta.

“Anitzak izango dira herrietan aurrera eramango diren mobilizazioak; giza-kateak, mosaikoak, manifestazioak, ekitaldi musikatuak... aniztasuna ez baita falta izaten sekula urtarileko mobilizazio berezi honetan. Guztiek ordea ekimen bateratu bat eramango dugu aurrera; “argizatutako bidea”, hau da, mugikorrek argiak baliatuz osatutako argazkia”, Sarek ohartarazi duenez. Hartara, Bilbo ez baina “beste 216 kale beteko ditugu aldarriz, itxaropenez, eta aldaketa gogoz”

Urruntze politikaren amaiera eta beraz, euskal presoek euskal herriratzeko eskatuko da eta baita presoek etxerako bidea errazteko ezinbestekoa duten gradu progresioa ezartzea ere. Mobilizazioak “osasun-segurtasunerako neurri guztiak errespetatuta” egingo dira.

Lekuko aldaketa

Olatz Lasagabaster eta Patxi



Manifestazioa Mikel Laboa plazatik abiatuko da arratsaldeko 17:30ean.

ESKAERAK

“Urruntze politikaren amaiera, euskal presoek euskal herriratzeko eta presoek etxerako bidea errazteko ezinbestekoa duten gradu progresioa ezartzea”

Uranga aske izan arren, oraindik Euskal Herrian dauden hainbat “motxiladun haur” eta etxetik urrun diren presoekiko hartuemanen murrizte edo etetea areagotu duen pandemia gogoan hartuta plazaratu zuten Olen-tzerok eta Mari Domingik neguko ospakizunetako mezua. Oraingoan, osasun krisialdia tarteko bideo bidez proiektatu behar izan zuen abenduaren 24an frontoian, Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak.

“2021ean aske-opa!” ekimena antolatu zuten urteko azken egunerako; agur bikoitzaren lekuko izan ziren hitzorduko partehartzaileak. Batetik, 47 urtez lehen aldiz errepresaliatu politikorik gabe amaitu zuen urtea Usurbilek. Eta tes-

tinguru berri honetan, lekuko aldaketa gauzatuko da laster. Orain arte Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deitu izan ditu hilabete amaierako azken ostiraletako elkarretaratzeak. Bilguneak bere jarduna amaitutzat eman du, nahiz mobilizatzeko beharra izango dela azpimarratu zuten urte amaierako ekitaldian, euskal preso, iheslari eta deportatu guztiak etxeratu arte. Usurbilek duen testuinguru berri honetan aurrerantzean, Sarek deituko ditu hileroko mobilizazioak. Euskal Herri mailan ere Etixerat-ek eta Sarek hitzorduko batera deitzea adostu dute, ahaleginak batu asmoz.

Datozen mobilizazioak

Urtarrilak 9, larunbata

■ 17:30 “Bidea gara” manifestazioa Usurbilen, Mikel Laboa plazatik abiatuta.

Urtarrilak 29, ostirala

■ 20:00 Elkarretaratzea Mikel Laboa plazan.

■ Deitzailea: Usurbilgo Sare.

Ernairen babesak

Sarek urtarilaren 9rako herriz herri deitu dituen mobilizazioekin bat egin zuen Enai gazte antolakundeak iragan larunbat eguerdian Hego Euskal Herriko lau herrialdeetan egin zuen agerraldi banatan. Gipuzkoakoa Usurbilen egin zuten, “mezu argi bat zabaltzeko: Euskal Herrian gatazka politiko-armatuaren ondorioak bizi dituen azken belaunaldia izan nahi dugula eta behar dugula”.

Hego Euskal Herriko lau udalerrri hautatu zituzten, herrialde bakoitzeko bat; Gipuzkoan Usurbil. “Gazteok zuekin gaude!” adierazi zioten espetxeak hustu eta dispartzioarekin amaitzeko duela hiru urte bidea abiarazi zuen Euskal Preso Politikoen Kolektiboari.

Kantuz girotu zuten hitzorduan, guztien askatasuna dutela helburu adierazi zuten; “euskal preso, iheslari eta deportatuek kalean egon behar dute” aldarrikatu zuten presoek argazkiak eskutan hartu zituzten 90 eta 2000. hamarkadan jaiotako gazteek. “Hurrengo larunbatean herriz herri eta auzoz auzo kaleak beste behin ere betetzea dagokigu”.



Gipuzkoa mailako agerraldia Usurbilen egin zuten.

ZALDIGAIN

ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak....

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax: 943300045

www.noaua.eus

USURBILGO ATARIA

GAR

GRUPO MONROY

BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

628 45 78 39

reformasmonroy@hotmail.es

TXARAMUNTO 14, 2 C USURBIL

“Inoizko udal aurrekontu sozialenak” hasieraz onartu dituzte

Udal gobernu taldeak abenduaren 23ko udalbatzarrean nabarmendu zuen moduan, ezinbestean osasun, gizarte, ekonomia eta ekologia krisialdien testuinguruan kokatu beharreko udal aurrekontuak dira egun hartako osoko bilkuran hasieraz onartzera zihoazenak; guztira, 12.882.050 eurokoak. Bizi dugun egoerak 2020ko azken udalbatzar hartan alkateak zioenez “inoiz baino gehiago eskatzen ditu herri adostasunak”.

Azkenean gehiago osoz onartu zituzten urte berrirako udal aurrekontuak; EHBilduren babesarekin. PSE abstenitu zen eta EAJk aurka bozkatu zuen.

Udalbatzak hartutako erabakia abenduaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kaleratu zuen Udalak. Biharamunetik (abenduak 31) zenbatzen hasita, alegazioak aurkezteko 15 lan eguneko epea dago. Tarte horretan halakorik ez balego, behin betiko onartutzat joko dira udal aurrekontuak.



Gizarte larrialdietara ere 90.000 euro bideratu asmo dituzte, beharra balego laguntza poltsa hau indartzeko asmoa agertu du udal gobernu taldeak.

UDAL AURREKONTUAK

PSE-EE abstenitu egin zen eta EAJk aurka bozkatu zuen

%4ko igoera

Aurreikuspen guztiak hautsi dituzte aurrekontuak; ohiko diru bilketa %10ean murriztu arren, %4ko igoera dute iazkoekin alderatuta, Txirikorda proiektuaren harira jasotako diru-laguntzei esker. Horrek inbertsio soziala indartzea ahalbidetu dio udal gobernu taldeari. Tartean ia milioi bat euro bideratzea diru-laguntzetara. Aurreko urteetako

lerroez gain, 4 laguntza lerro berri iragarri dituzte, “Usurbil Zabalik” egitasmoaren bueltan; Eskola Kirola ordaintzen laguntzeko; kultur sortzaileentzat; pobrezia energetikoari aurre egiteko. Eta hauei PSEk eginiko ekarpena ere erantsi diote; botikak eskuratzeko zailtasuna dituzten familientzako laguntza lerroa.

Gizarte larrialdietara ere 90.000 euro bideratu asmo dituzte, beharra balego laguntza poltsa hau indartzeko asmoa agertu du udal gobernu taldeak. Pertsonak, kolektibo zaurgarrienak erdigunean jarri eta haien ongizitatea berma-

tzea helburu dute aurrekontuok udaltzarrean alkateak adierazi zuenez, eta horrekin komunitate izaera indartzea.

“Gai askotan ados gaude”

Urte berri honetarako iragarri zituzten egitasmoen artean dira: zaintza ereduari buruzko parte hartze prozesua, jatorri aniztasuna eta elkarbizitza sustatzeko egitasmoa, Beterri Buruntza Mankomunitatearen sorrera, Hiria Antolatze Plan Orokorraren hasierako onarpena, kirol alorreko plan estrategikoa, Txirikorda eta Pelaiotena... Abenduan aldizkari honetan berri eman genizuen moduan.

Oposizioko udal taldeei zuzenduta, adostasun giroa nabarmen zuen alkateak. “Mamian gai askotan ados gaude” adierazi zien EAJren udal ordezkariari. EAJren 7 emendakin nabarmendu zituen, iazko 3 gehi jeltzaleek eginiko beste lau ekarpen berri. Desadostasuna zenbait partidetan zutela; “gehiegizkoak dira zuek eskatutakoak”. Udal gobernu taldearen ustez, “diru gutxiagorekin eta udal baliabideekin egin dezakegu”.

PSE-EEren abstentzioa, erantzukizunagatik

PSE-EE hasiera batean osoko zuzenketa eta 49 emendekin partzial aurkeztekotan zen udal aurrekontu hauei. Hasieraz onartu bezperatan ordea, abstenitu egingo zela iragarri zuen sozialisten udal ordezkari Patxi Suarezek, “EHBilduren udal gobernu taldeak egindako negoziazio prozesuaren ostean”. Pleno egunean berretsi zuen bere erabakia; “interpretazio oker batzuk” egin zituela adierazita eta udal gobernu taldearen

jarrera positibo eta irekia izan zela gaineratuta. PSE-EEtik ohar bidez jakitera eman dutenez, “udal gobernu taldearen jarrera irekia baloratu ostean, bi alderdien arteko bileraren giro onak akordio batera heletzea erraztu du”. Koherentzia eta erantzukizunagatik udal aurrekontuon aurrean abstenitu egingo zela iragarri zuen Suarezek.

Udal aurrekontuekiko desadostasuna agertzen segi arren, “pandemiak eragindako

osasun, ekonomia eta gizarte krisiak zerikusi handia izan du” PSEren jarrera aldaketak, “gure jarrera malgutu eta akordio batera heltzeko ahalegina egin behar dugula ulertzen dugulako”.

EHBildurekin adostutakoaren baitan, “EHBilduk guztira 21.580 euroko zatikako 15 emendakin onartu ditu. Elkarbizitzari, Memoria Historikoari, kulturari eta euskarari, ingurumenari lotutako neurriak adostu ditugu, bes-

teak beste”.

EHBildurekin akordio batera heldu arren ordea, Suarezek uste du “Usurbilek kreditu batera jo beharko duela, beharrezkoa bada”, eta hala gertatuko balitz, aukera hau ez baztertzea eskatzen du. Partida batzuei dagokienean bi alderdiak desados egoten segitzen dutela ere gaineratu zuen; adibidez, “politika subiranistetan sakotzen duen Udalbiltzari egiten zaion ekarpenean”.

EAJk zuhurtzia falta egotzi dio udal gobernuari

EAJk 2021eko udal aurrekontuen kultur eta gizarte babeserako laguntzak defendatu zituen. Eta kolektibo zaugarrienak babestearikiko adostasuna agertu zuen. Baina urte berriko finantziazioaz kezka agertu zuen EAJk, ohiko diru-sarrerak %10 jaitsi direlako eta gastuek aldiz gorantz egin dutelako. “Zuhurtziaz jokatu duzuela diozue, baina ez dugu uste”, zioen Josune Urkola EAJren bozeramaileak. Aurrekontu proposamenaren aurka bozkatuko zutela iragarri zuten.

Alkatearen memorian jasotzen denez, jatsiera handiena Foru Funtsetik datorrena da, 333.791 euro, %7 gutxiago. “Baina Udalari dagokion diru bilketaari begiratzen badiogu, diru sarreraren jatsiera 857.307 eurokoa da. Hau da, %10ekoa”, dio EAJk ohar bidez. “Beraz, diru murrizketa handiena udal gobernu honek kudeatzen dituen zergen bilketatik dator. Udalak tasak izoztu ondoren suposatzen da biltzen den kopurua berean mantentzen dela baina diru bilketa nabarmen jaisten da. Esate baterako, zerga zuzenak 249.585 euro jaitsi dira eta tasak 241.154; orotara, 490.739 euro gutxiago”. EAJren iritziz,



EAJren ustez Txirikorda proiektua ez da estrategikoa, esperimentala baizik.

EAJ

“Diru murrizketa handiena udal gobernu honek kudeatzen dituen zergen bilketatik dator”

“ulertezina, Usurbilgo biztanleriaren beherakada handia gertatu ezean, eta ez da kasua”.

EAJren esanetan, “udal gobernuak ezin dio beste inori leporatu datu txar hauen ardura. Beraz gure ustez, diru sarreraren jatsiera bortitzena, udal gobernu honen erabakien eta jarreren ondorioa da”.

Inbertsioekin zalantzak

2,5 milioiko udal partida aurreikusten da inbertsioetan. “Haueetatik 205.000 euro konponketa edo egokitze-lanetara bideratuta”, dio EAJk. Kiroldegiko harmailak, Aginagako Eliza

zaharra, liburutegia... “Inbertsio ekimenetara berriz, 335.000 euro: Pelaioenea, Udarregiko frontoia estaltzea, efizientzia energetikora eta Usurbilgo 0.0 hondakinak plangintzara. Beraz, 540.000 euro gizarte onura benetan zabala dakarten ekimenetarako erabiliko dira eta beste dena, ia 2 milioi euro, Txirikorda proiekturako”.

Txirikorda egitasmoa

Alderdi jeltzalearen esanetan, “etorkizunean ustiatu ahal izateko bideragarritasun ekonomikoaren azterketarik gabeko proiektua da Txirikorda. Ze gizarte onura izango duen inkognita bat da eta ez gatoz bat proiektu hau estrategikoa denik. Gure ikuspuntutik proiektua esperimentala da”. Honen aurrean, EAJk

zuzenketa batzuk jarri zituen mahai gainean. “Proposamen batzuk 2020ko aurrekontuan sartu ziren, baina gobernu taldeak baliogabetu egin zituen Covid-19ak sortutako egoeran oinarrituz, partida horiek beste helburu batzuetarako erabiltzea erabaki ondoren eta 2021eko aurrekontuan sartuko zirela argudiatuta. Jarduketa horiek ez daude 2021erako aurkeztutako dokumentuan sartuta”, ohartarazi du EAJk. Adibidez: Zubietako eta Usurbilgo hirigunea lotzen dituen bidegorria, N634 errepidetik Usurbilerako sarrera hobetzea (biribilgune bat sortzea oinezkoen ibilbideak egokituz). “EAJk badaki udalaz gaindikiko erakundeek inplikazioa ezinbestekoa dela, baina usurbildarren bizitza hobetzen duten jarduerak dira, eta EAJk uste du nahitaezkoa dela horiek kudeatzea; horretarako, gobernu-taldeak jarrera adiskidetzaila eta konprometitua hartu behar du, eta akordioak lortu”.

EHBilduren erantzuna

EAJren aurkako bozkaren aurrean, “erabakiak tristetu egiten nau” esan zuen alkateak. Udal gobernu taldeak EAJren bi emendakin bere horretan jaso direla esan zen, eta “beste hiru rekin lanean ari gara”.

Udalentzako ez ohiko funts berezi gehigarria jasotzeko eskaera

Covid-19ak eragindako gastuei aurre egiteko udal entzako ez ohiko funts berezi gehigarri bat sortzea eskatu zion Eusko Jaurlaritzari mozio bidez udalbatzak, urte amaieran egin zuten azken osoko bilkuran. Europar Batasunak iragarritako funts bereziak ere udaletara heltzea galdegin zuten, “datozen urteetan izango ditugun erronkei aurre egiteko eta Covid-19aren izurriteak areagotutako krisi ekonomiko eta sozialaren ondorioak berregaitzeko”. Eskaerok jaso-

tzen zituen mozioa aurkeztu zuen EHBilduk. Gehiengo osoz onartu zuten udal gobernu taldeko kideen babesarekin; aurka agertu ziren EAJ eta PSE.

Mozioaren bidez Europatik datozen funtsen %30a udaletara bideratu, eta funtsen banaketa eta lanketa garatuko duen guneetan “EAEko udalen aniztasun osoa ordezkatua” izatea bermatzea eskatzen zuten.

Elkartasun falta

Eusko Jaurlaritzarekin

EAJren iritziz, gaia “EUDEL-

en eztabaidatu beharrekoa da ez udaletan”. Josune Urkola bozeramaileak gaineratu zuenez, kontua ez da bakarrik diru kopuru bat eskatzea, “jakin behar da zertarako erabiliko den”. Talde bereko udal ordezkari Andoni Atxega haratago joan zen, Jaurlaritzako oso zorpetua dagoela ohartarazita. Mozio honekin “Udalak solidarioa izan beharrean Jaurlaritzari egurra” ematen diola adierazi zuen eta desados agertu zen.

PSEren udal ordezkari Patxi Suarezren esanetan, gaia lan-

tzeko gunea Eusko Jaurlaritzako “Next Euskadi” egitasmoaren bueltan zegoela eta ez Usurbilgo Udalean.

“Ahotsa altxa behar dugu”

EHBilduren ustez, herritarren eta tokiko erakundeon defentsa egiteko unea da orain. “Udalok ahotsa altxa behar dugu”, zioen alkateak eta mozioa jotzen zuen horren aldarritzat. Hala egingo dute; udalbatzak urte amaieran onarturiko ebazpena Eusko Jaurlaritzari jakinaraziko diote.

“Egoera finantzarioa osasuntsua da”

Halaxe adierazi zuen Xabier Olano udal kontuhartzaileak abenduaren 23an egin zen urteko azken udalbatzarrean.

Usurbilgo Udalak udal aurrekontuen exekuzioari buruzko informazioa helarazi behar izaten dio hiruhilero Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta bide batez udalbatzari ere gai honen inguruko xehetasunak ematen zaizkio; batetik, zorpetze mailaren berri; urtea %14aren bueltan borobiltzea aurreikusten zuen Olanok. Eta udal aurrekontuen exekuzio maila %100ekoa ez dela izaten adierazi arren, ehuneko horretatik hurbil kokatu zituen udal kontuhartzaileak 2020a ixterakoan Udalak izan zitzakeen diru-sarrerak eta gastuak. Segidan orain arte aipaturikoa zenbakitan:

Zorpetze maila

- 2. hiruhileko amaiera: %15,15.
- 3. hiruhileko amaiera: %14,61.
- Urte amaierako aurreikuspena: %14 inguru.

Exekuzio maila

- 2. hiruhileko amaiera: Sarrerak: %54. Gastuak: %46.
- 3. hiruhileko amaiera: Sarrerak: %76,53. Gastuak: %69,41.
- Urte amaierako aurreikuspena: Sarrerak: %80-90.



2020ko zorpetze maila %14aren bueltan borobiltzea aurreikusi du Usurbilgo udal kontuhartzaileak.

GERTUAGO KANPAINA

“Sei hilabeteetan 124.964 euroko ekarpena egin dio Gertuago egitasmoak herri merkataritza eta ostalaritzari”

Gastuak: %70-80.

Ostalarientzako diru-laguntza deialdia

Egunotan argitaratzekoa da Usurbilgo Udalak ostalariei zuzenduta urte amaieran iragarri zuen diru-laguntza lerro berria; 1.000 eurora arteko laguntzak (700 euroko laguntza finkoa gehi beste 300 euro jasotzeko aukera, hornikuntza gastuak herriko komertzioetan eginez gero). Abenduaren 29ko Tokiko Gobernu Batzordean onarturiko deialdi honen oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera bideratu ahalko dira eskabideak. 40.000 euro bideratu ditu Udalak egitasmo honetara.

“Gertuago” egitasmoak 125.000 euroko ekarpena

Usurbilgo Udalak eskaintako datuen arabera, sei hilabeteetan 124.964 euroko ekarpena egin dio Gertuago egitasmoak herri merkataritza eta ostalaritzari. Kopuru horretatik 99.971 euro herritarrek eginiko ekarpenetik jaso ditu sektoreak, gertuago.eus ataritik erosketa-bonuak eskuratuta, gainerako 24.993 euroak Udalak jarri ditu. Gogoan izan, bonuei %20ko deskontua aplikatzen zaie, deskontu hori Udalak hartzen du bere gain.

Bonuak ez dira agortu

Hainbat saltokietakoak bai baina ez guztietakoak, bonuak ez dira guztiz agortu; ekainean salgai jarritakoak abenduaren 31ra arte erabil zitezkeen; irailean salgai jarritakoak martxoaren 31ra arte erabili ahalko dira. Oraindik salgai dauden bonuak gertuago.eus webgunean sartuta eskura ditzakezue.

Udal mikrobusa saharar herriarentzat

Usurbilgo Udalarena izan den mikrobusa Tolosaldea Sahararekin elkarteari dohaintzan ematea erabaki zuen udalbatzak iragan apirila amaierako osoko bilkuran. Mikrobusa ofizialki abenduaren 18an eman zion Udalak aipatu elkarteari, brigadak Atallun duen egoitzan egin zuten ekitaldian. Hitzorduak, Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrieta, Tolosaldea Sahararekin Elkarteko ordezkari Gregorio Eizagirre eta Mohamed Liman Ali Fronte Polisarioak EAEn duen ordezkaria bildu zituen.

Esker onez

Usurbilek saharar herriari emandako hirugarren mikrobusa da ondoko irudikoa. Esker onez hartu dute Tolosaldea Sahara elkar-tekoek. “Gure esker ona ematea Usurbilgo herriari eta Udalari beren laguntzagatik”. Orain arteko lankidetzari jarraipena emateko nahia agertu zuen aipatu elkarteoko ordezkari Gregorio Eizagirrek.



Alkatea, Tolosaldea Sahararekin Elkarteko kidearekin eta Fronte Polisarioeko ordezkariarekin.

Oinarritzko argazkilaritza ikastaroak, Ibai Arrietaren eskutik

Oinarritzko argazkilaritza ikastaroa I

- Helburua: “aukera manualak dituzten kameren oinarritzko funtzionamendua ikasi eta argazkilaritza ulertu eta gozatzeko hastea”.
- Urtarrilak 14-martxoak 5.

■ Ostegunetan, 19:15-20:45.

Oinarritzko argazkilaritza ikastaroa II

- Helburua: “ikastaroaren lehen zatian landutako kontzeptuak sakontzea. Paisaia, erretratugintza, kale argazkilaritza uler-

tu, landu eta gozatzeko aukera izango da”.

- Urtarrilak 12-martxoak 23.
- Astearteetan, 19:00-20:30.

Ikastaroak, Potxoenean

- Tokia: Potxoenea.
- 16 urtetik gorakoei zuzen-

dua.

- Prezioa: 90 euro.
- Oharra: parte hartzaile kopuru mugatua.
- Izen ematea: 635 701 473 (urtarrilaren 4ra arte).
- Antolatzailea: Einean Guraso Elkartea.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Kontratu finkoa daukat eta Usurbilen edo Lasarten kontratuarekin eta errodarekin alokairuan etxe bat edo logela bat hartuko nuke. Fernandorengatik galdetu: 675886442.

91m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11m² terraza, 8m² trastelekua, 24m² garajea erosteko aukera. 678949958.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Alokairuan

Usurbilgo erdigunean gela bat alokatzen da gizaseme langile edo jubilatu bati. Nahiago euskalduna izatea. 687348223

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

Alokatzeko etxe baten bila ari

naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Volkswagen Caravelle, 2011koa, salgai. 677642776.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326

Nissan Note 1600 gasolina kotxea daukat salgai, GRD matrikuladuna. 634416863

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Helduak zaintzen esperientzia duen neska bat naiz eta lan bila nabil, orduka, esterna edo interna moduan. 603315126.

Emakume bat eskaintzen da umeak, adineko pertsonak eta etxeko lanak egiteko. Informekin 658706345 / 602568090.

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia

izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen daskien pertsona izatea. 638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegi. 680 483 164

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

24 urteko neska gaztea. Arratsaldez umeak zaintzeko eskeintzen da. 695617001

Emakume usurbildarra naiz eta lan bila nabil, umeak zaintzeko edo etxekolanak egiteko. 627184674.

Ingeleseko irakaslea naiz baina

bestelako lanak egiteko ere prest dagoen emakumea naiz. Etxeko lanak, umeen zaintza edo heldue-na. 631746521.

Pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. Intersatuak deitu: 631 489 128.

Astelehenetik ostiralera orduka, pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 631157290.

Pertsona helduak zaintzeko gizona eskaintzen da. Lanaldi osorako edo orduka lan egiteko prest... Esperientzia eta erreferentziak ditut 603595656.

Udan umeen zaintzaile lanetan edo klase partikularrak emateko prest nago Usurbilen. 648059422

Saio partikularrak emateko eskaintzen naiz (edozein adinetako haurrei). Irakasle titulua dut eta iaz Ikastolan jardun nintzen klasea ematen. Ingelese ere eman ditzaket saioak. 662127029.

Ekaina, uztaila eta abuztuan haurren zaintzaile lanetan edo partikularreko irakasle gisa

jardun nahi dut. Esperientzia zabala dut alor honetan. 688695958

Emakume bat etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest. 664192760 / 722483994.

Esperientzia eta erreferentziak ditut. Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. 602830982

BESTELAKOAK

Perikito bat galdu da Punta-pax inguruan. Urdina, bularraldean lumak galduta ditu. Topatu baduzu, deitu hona: 675007048.

Mendiko bizikleta bat salgai 450 euro, negoziagarriak. 646715903 (Maider)

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitetzke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatean: 9:00-13:00.

**Zorionak Irati!!**

Urtarrilaren 8an jada 3 urte beteko dituzu. Muxu pila bat lagun eta etxekoen partez.

**Ostiralean 6 urte**

handi Xune! Zorionak familia guztiaren, eta bereziki, Haizearen partez. Ondo pasa!

Heriotzak**Soledad****Zabala Bergara**

Abenduaren
23an hil zen,
97 urterekin

**Heriotzak****Petra Sánchez****Palacios**

Abenduaren
23an hil zen,
71 urterekin

**Goardiako farmaziak**

Osteguna 07 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 08 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 09 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 10 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Astelehena 11 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteartea 12 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Asteazkena 13 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Osteguna 14 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 15 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 16 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 17 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
URRUTIA-MARTIN-HERNANI
Etxeberri auzoa, 1. Florida
943 55 77 38

Agenda

urtarrila

07 osteguna

■ **Usurbilgo sortzaileen uztia** Usurbilgo sortzaileek plazaratu dituzten sortze lanen bilduma ikusteko azken eguna. Tokia: Sutegiko erakusketa aretoan.

08 ostirala

■ **"Maita(k)ale" eta "Mundu berri bat" antzezlan laburrak** 18:00etan Sutegin. Sarrera: aurrez 3 eurotan, usurbilkultura.eus atarian eskuragarri.

09 larunbata

■ **Sarek deitutako mobilizazioa** 17:30ean Mikel Laboa plazatik abiatuta.

Antzezlan laburren arratsaldea

Hitz Aho Udarregi Ikastolako guraso elkarteak antzezlan laburren arratsaldea antolatu du ostiralerako, urtarrilak 8, 18:00etan Sutegiko auditorioan. Emanaldirako sarrerak 3 eurotan eskuratu ahalko dira aurrez, usurbilkultura.eus atarian. Antzezlan labur hauen gozatzeko aukera izango da:

"Maita(k)ale borroka"

■ Idazlea: Mikel Fernandino.
■ Zuzendaria: Getari Etxegarai.
■ Aktoreak: Ane Pikaza, Aitor Fernandino.
■ Iraupena: 20 minutu.
■ Sinopsia: "Kepa, gau erromantiko hartarako prest dago dagoeneko: jatetxea, lore sorta bikaina, kandelak... Noski, ez zuen espero egun horretan deitutako grebak gau hartako norabidea guztiz aldatuko zuenik. Neska hura perfektua zen; hala zirudien behintzat. Indarkeriaz, maitasunez eta bestelako aldarrikapenez beteriko antzezlan".




Ostiral honetan, urtarrilak 8, bi antzezlan labur eskainiko dituzte Sutegin. Tartean, "Maita(k)ale".

"Mundu berri bat"

■ Idazle eta zuzendaria: Erik Leal.
■ Aktoreak: Aiora Sedano eta Xabi Ortuzar.
■ Iraupena: 17 minutu.
■ Sinopsia: "Betidanik esan da gizakiok gure sekreturik sakonenak ezezagunei kontatzeko joera daukagula... baina, batzuetan, guretzako pertsonarik ezezagunena, gu geu gara, norberaren burua. Beak bere maleta hartu du alde egitea erabaki baitu. Alde egin eta ihes egin, inoiz ez dira izango sinonimoak".

Datozenak



Joxan Artzeren omenez

Hiru urte Joxan Artze zendu zenetik, bere oroimenak bizi asko dirau. Iaz bezala, urtarrilaren 7tik 15era berari idazteko liburua herritarren eskura jarriko dute Sutegi udal liburutegian. "Idatzi txiki bat, poema bat, Joxan go-goan bihotzetik ateratzen zaigun hori idatzi ahal izango dugu bertan". Horrekin batera, liburutegiak Artzeren liburua ikusgai jarriko ditu urtarrilaren 7tik 17ra kultur-etxeko aretoan.

Hizkuntza eskubideen ahalduntzerako saioa

Hizkuntza Eskubideen Behatokiak eta Usurbilgo Udalak berriki sinaturiko lankidetzak hitzarmenaren testuinguruan, herritarrek dagozkien hizkuntza-eskubideen arloan ahalduntzeko prestakuntza saioa deitu du Usurbilgo Udalak otsailaren 3an 18:00etan Sutegin. Behatokiak bideratuko duen hitzordurako izena doan eman daiteke jada usurbilkultura.eus atarian.

Ahalduntze ikastaro berria

Parekidetasun Sailak "Estado de salud y cuidado emocional" izeneko ikastaroa antolatu du, emakumeei zuzendua. Pepa Bojo Ballester psikologo eta psikoterapeutak eskainiko du urtarrilaren 21etik martxoaren 25era. Ostegunez izango dira saioak, 17:00-19:00 artean, Potxoenean.

Helburua, "emakumeok gune bat sortzea da, bereziki bizitzen ari garen bizi-penak eta egoerak partekatzeko". Parte hartzaile kopuru mugatuarentzako lekua egongo da. Izena aurrez eman beharko da (doan da ikastaroa): 943 377 110. parekidetasuna1@usurbil.eus

lnaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

info@lnakiiturgintza.com - www.lnakiiturgintza.com

600 024 825

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.eus

ETXETRESNEN KONPONKETA-SALMENTA

MARKA GUZTIAK

DESHUMIDIFIKADOREAK ERE BAI !

645417665

xabier



FINKA ADMINISTRATZAILEA

AHOLKULARITZA ZERBITZUA

INMOBILIARIA

ASEGURUAK

943 573 693

Eusko Gudari 35, ORIO

Herri osoak ikus zaitzala nahi duzu?

IPINI ZURE IRAGARKIA HEMEN

Kontsulta itzazu tarifak
www.noaua.eus helbidean edota
deitu 943 36 03 21 zenbakira

noaua

BAZKIDEEN TXOKOA noaua! euskararen aterpe



2 saski zozketatuko ditugu
urtarrilaren 29an

Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / ekartea@noaua.eus

noava

jarraitu gure sare sozialak



[www.noava.eus](http://www.noa<u>va</u>.eus)